

KULTURA ANIZTASUNAREN ATALAREN JARDUEREN MEMORIA

2013

Donostiako Udala



Jardueren memoria 2013

- **Kultur Aniztasunaren Atala**
 - Aniztasun Kulturalaren Atalaren sorrera eta aurkezpena
 - Kultur Aniztasunaren logotipoa aukeratzeko lehiaketa
- **Jatorri Anitzak eta Elkarbizitza**
 - Jatorri Anitzak eta Elkarbizitza Donostian: diagnostikoa
 - Auzoz auzoko diagnostikoaren sozializazioan parte hartzeko
- **Sentsibilizazioa eta Kontzientziazioa**
 - Ijito Herriaren Nazioarteko Eguna
 - Dialogorako eta Garapenerako Aniztasun Kulturalaren Nazioarteko Eguna
 - Aniztasunaren Eguna Día “11 Kolore Fest”
 - Ijito Herriaren Eguna Euskal Herrian
 - Hartzaroaren Nazioarteko Eguna
 - Giza Eskubideen Nazioarteko Eguna
- **Ahalduntzea**
 - Emakume immigranteen topagune kulturantzuna
- **Sareetan parte hartzea**
 - Udalanitz Sarea
 - Hiri Kulturantzaren Sarea
 - ICC- Intercultural Cities
- **Diru-laguntzak**
 - Bakea, giza eskubideak eta kultur aniztasuna

KULTUR ANIZTASUNAREN ATALA

2013ko ekainaren 4

Kultur Aniztasunaren Atala sortu eta aurkeztu da



Donostiako alkatea eta naiara Sampedro zinegotzia hainbat erakundetako ordezkariekin eta aniztasun kulturalaren logotipoaren lehiaketako parte-hartzaileekin, lehiaketa irabazi duen logotipoa erakusten

Kultura Aniztasunaren Atala sortu da, pertsona guztien eskubide sozialak, zibilak eta politikoak bermatzeaz arduratuko dena; halaber, arrazismoaren eta xenofobiaren aurkako eta elkarbizitzaren eta aniztasunaren aldeko politikak ere garatuko ditu.

Hirian jatorri eta kultura anitzeko pertsonak elkarrekin bizi direla kontuan hartuta eta, edonon jaiota ere, denak donostiarrak direla ahaztu gabe, atal berria sortzeko arrazoi nagusia aniztasuna bermatzea eta sustatzea da. Atalaren helburuak elkar errespetatzean eta onartzean oinarritzen diren politikak sustatzea da eta, halaber, pertsona guztien eskubide politikoak, sozialak, ekonomikoak, hizkuntza-eskubideak eta eskubide kulturalak bermatzea eta guztion eskubideak, betebeharrak eta aukeraberdintasuna defendatzea.

Aurkezpenean atal berriaren irudi bihurtu den logotipoa ere aditzera eman da.

KULTUR ANIZTASUNAREN ATALA

2013ko apirilaren 6a

Kultura Aniztasunaren Logotipoa aukeratzeko lehiaketaren erakusketa



Kultura Aniztasunaren Logotipoa aukeratzeko lehiaketaren erakusketako irudia



Guztira 62 proposamen aurkeztu dira Kultur Aniztasunaren Atalerako logotipoaren lehiaketara. Irabazi duen proposamenak 1.200 €-ko saria jaso du. Irabazlea Juan Ignacio Cordovilla da, eta "*Diálogo de Culturas*" ezizenarekin aurkeztu da lehiaketara. Logo horren bidez, alde batetik, hirian dagoen hizkuntza-aniztasuna erakustea da, eta, bestetik, hizkuntza kultura eta jatorri anitzeko pertsonen lotura gisa sustatzea.

Irudian lau dialogo-bunbuilo ikus daitezke. Bunbuiloak zirkulua osatuz biltzen dira eta barruan alfabeto desberdinetako karaktereak dauzkate. Beste ezaugarri bat erabilitako kolorea da: urdina, gure hiriarekin lotura handia duen kolorea, alegia. Lehiaketara aurkeztu diren logotipo guztiak ikusgai egon dira Alderdi Eder Liburutegian ekainean zehar publikoarentzako egin den erakusketa batean.

Erakusketaren ondoan gutunontzia eta postal formako lau txartel mota ipini dira. Txartel mota bakoitzak galdera bat eta lauki zuria zekartzan, bisitariek ekimenak, kontsultak, eta abar idatz zitzen.

Donostia Kulturaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzaz egin da.

JATORRI ANITZAK ETA ELKARBIZITZA

2013ko uztailaren 4a

2012ko abenduaren eta 2013ko ekainaren artean Donostiako Udalak, Aztiker Soziologia Ikergunearekin batera, hiriko Jatorri Anitzei eta Elkarbizitzari buruzko diagnostikoa egin du.

Udal erroldako datuetan oinarritutako ikerketa kuantitatiboan Donostiako biztanleen jaioterrien mapa eta bilakaera biltzen dira. Ikuspegi orokorra azaltzen da (jaioterria, sexua eta adina kontuan hartuz) eta gehiengoa dutenen kolektiboen jatorria aztertzen da. Horrez gain, jaioterriaren analisia egin da, auzoz auzo.

Ikerketa kualitatiboa egiteko, elkarriketa sakonak egin dira, banaka zein bikoteka eta eztabaida taldea sortu da. Elkarriketak hainbat jatorri, kultura eta identitatetako donostiarrei egin zaizkie. Guztira 25 elkarriketa egin dira. Donostiako aniztasunaren eta elkarbizitzaren errealitatea aztertu da eta herritarrek eta hainbat agentek aniztasunari buruz dituzten balorazioak, iritziak, pertzepzioak eta jokabideak bildu dira.

Uztailaren 4an, Udalaren osoko Bilkuretako Aretoan, emaitzen txostenaren ondorioak azaldu dira.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzaz egin da.

Jatorri Anitzen eta Elkarbizitzaren Diagnostikoaren aurkezpena



Naiara Sampedro, zinegotzia, Aztikerreko ordezkariekin, diagnostikoaren emaitzen aurkezpenean

JATORRI ANITZAK ETA ELKARBIZITZA

2013ko irailaren 30etik urriaren 10era

Jatorri Anitzari eta Elkarbizitzari buruzko auzoz auzoko Diagnostikoa sozializatzeko prozesu partizipatiboa

Irailaren 19an, prentsaurrekoan, prozesu horren helburu nagusiak eta saioen egutegia aurkeztu dira.

Irailaren eta urriaren artean topaketak egin dira hiriko 5 auzotan, ikerketaren emaitzak aurkezteko eta erkatzeko (saioa egin den auzoari dagozkion emaitzei erreparatu zaie bereziki), Kultur Aniztasunaren Atal berria eta dagozkion jardunbideak ezagutzera emateko eta, halaber, hiritarren iritziak eta ekarpenak biltzeko ere.

2 ordu inguru iraun zuten topaketa horietan eztabaida, hausnarketa eta eraikuntza kolektiboa sustatu dira, parte hartzea bultzatzen duen metodologiak eta lan-dinamikak erabiliz. Guztira 35 bat lagunek parte hartu dute.

Bildutako ekarpenen arabera konklusioen txostena egin da eta 2014ko otsailean itzultzea aurreikusi da. Horrez gain, batzarren aktak bidali zaizkie parte hartu duten pertsona guztiei.

Donostia Kulturaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzaz egin da.



Alde Zaharrean egindako topaketaren irudia (MST)

SENTSIBILIZAZIOA ETA KONTZIENTZIAZIOA

2013ko apirilaren 8a

Ijito Herriaren Nazioarteko Eguna

Donostiako Udalak Ijito Herriaren Nazioarteko Eguna ospatu du. Horretarako, zenbait jarduera egin dira; besteak beste, balkoi nagusian bandera jarri da eta harrera egin zaie elkarteei.

Juan Karlos Izagirre, Donostiako alkateak, alderdi politiko guztien ordezkariekin batera, harrera egin die ijitoen elkarteen ordezkariari. Gainera, makila bat elkartrukatu du Ijito Herriaren Garapenerako eta Partaidetzarako Euskal Kontseiluaren presidenteordea den Manuel Vizarragarekin.

Ijito Herriaren Nazioarteko Eguna egun seinatua eta beharrezkoa da. Egun horretan mundu osoko ijitoak batzen dira, ijitoen lehenbiziko kontseilua eta ijitoen exodoa gogoratzeko.

Bestalde, lehentxeago onartutako deklarazio instituzionala irakurri da eta Kameramos Adiquerar elkarteko bi ordezkariak komunikatua irakurri dute.

osoko Bilkuren Aretoan egindako ekitaldian Sim Romi, Kale Dor Kayiko, Sueti Calli eta Flamenco del Norte elkarteen ordezkariak bertaratu dira.

Amaitzeko, hiri-autobus guztietan ijito-herriaren bandera jarri da, Dbus-en laguntzaz.



SENTSIBILIZAZIOA ETA KONTZIENTZIAZIOA

2013ko maiatzaren 21a

Dialogorako eta Garapenerako Kultur Aniztasunaren Nazioarteko Eguna



Donostiako Udalak, EH 11 Kolorerekin batera, ekitaldia antolatu du Alderdi Ederreko terrazan, Dialogorako eta Garapenerako Kultura Aniztasunaren Nazioarteko Eguna ospatzeko.

Deklarazioa irakurri da eta Burubeltz konpartsa aurkeztu da. Konpartsa hori Donostiako Piratak festa mugimenduak berariaz sortu du, ekainaren 1eko Danbor Guztien martxa animatzeko.

Udaletxeko terrazan, Samira Goddi eta Xabier Mendiguren EH 11ko bozeramaileek herri-ekimen horren konpromisoak zein diren gogorarazi dute: hiritar guztien eskubideen, betebeharren eta aukeren berdintasuna defendatzea, jaioterria dena delakoa izanda ere; euskal gizartearen kultura-aniztasuna zaintzea eta sustatzea, berezko balioa bezala; jatorri desberdineko hiritarrak biltzeko, elkarri eragiteko eta elkarrekin aritzeko guneak bideratzea, eta hausnarketa, elkarrikeria eta etengabeko debatea bultzatzea euskal gizarte osoarengan.

Azkenik, Naiara Sampedrok, EH 11 Koloreko bozeramaileak eta Donostia 2016ko Fernando Bernuések deialdia egin die euskal hiritar guztiei ekainaren 1ean, larunbatean, *Bai aniztasunari! Gora aniztasuna!* oihu egin dezaten Donostiako kaleetan, Danbor Guztien Martxan parte hartuz.

SENTSIBILIZAZIOA ETA KONTZIENTZIAZIOA

2013ko ekainaren 1a

Aniztasunaren Eguna “11 Kolore Fest”

Euskal Herria anitza da hiritarren jaioterrien eta kulturen aldetik, horregatik, jaioterria dena delakoa izanda ere denok biltzeko elkargunea sortu da. Jai giroan dibertitzeko eguna da, denona den lelopean: “Bai aniztasunari!” “Gora aniztasuna!”.

Egun horretarako hainbat ekintza antolatu dira: pintxo-potea Alde Zaharreko 11 tabernatan, umeen tailerra Bulebarrean, Porrotxek dinamizatuta, Pregoia, Txupinazoa eta Perku-Flashmob Alderdi Ederren eta, amaitzeko, eguneko jarduera nagusia, Danbor Guztien Martxa, Alderdi Ederren hasi eta hiriko kale nagusietan zehar egin dena.

Gainera, Udalak bat egin du EH 11 Kolorek egin duen manifestuarekin.



SENTSIBILIZAZIOA ETA KONTZIENTZIAZIOA

2013ko azaroaren 16a

Ijito Herriaren eguna Euskal Herrian

Gipuzkoaren Etorkizunerako Ijitoen Elkartearekin (GIETIJE) batera, zenbait ekintzen programazioa garatu da, ijito herriaren historia eta kultura ezagutzea eta aintzat hartzea bultzatzeko. Ijito herriak 500 urte baino gehiago daramatza gure artean, hiritarrek, oro har, ezagutzen ez badute ere eta haiei buruzko aurreiritziak dituzten arren.

Antolatutako ekintzen artean, aipagarriak dira hiriko Gaztelekuetan azaroan egin diren hitzaldiak. Hitzaldiak informalak izan dira eta parte hartzean oinarritutako metodologia erabili da eta "Miguel y Nekane. Historia del Pueblo Gitano" komikiaren egileak bertaratu dira. Komiki horren bidez, emakume eta gizon ijitoen ikuspuntu eguneratua adierazi nahi da eta, halaber, ijito herriaren historiako pasarte garrantzitsuenen berri eman nahi da. Guztira 104 gaztek eta 8 Gaztelekuk parte hartu dute.

Bestalde, azaroaren 15ean, arratsaldeko 6etan, "Memoria Gitana. Guerra Civil y dictadura en el País Vasco" izeneko dokumentala eman da San Telmo Museoan (dokumentalaren aurkezpen ofiziala urriaren 15ean egin zen Principal antzokian). Horren ondoren, arratsaldeko 7etan, hiritar ororentzako hitzaldia eman da. Hitzaldian, aipatutako dokumentalaren eta komikiaren egileek parte hartu dute. Dokumentalaren eta komikiaren sortze-prozesua aurkeztu ondoren, Euskal Herriko ijitoen Herriaren bilakaera historiko eta kulturalari buruz hitz egin dute.

Donostiako Udalaren Gazteria Atalaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta San Telmo museoaren laguntzaz egin da.



Proiekkzioa eta hitzaldia San Telmo Museoan



Hitzaldia Egiako gazteluan

SENTSIBILIZAZIOA ETA KONTZIENTZIAZIOA

2013ko azaroaren 20a

Haurtzaroaren Nazioarteko Eguna

Giza Eskubideen atalarekin batera, **"Babel: munduko ipuinak, munduko kulturak"** erakusketa ikusteko bisita gidatuak antolatu dira. Dar-Dar produkzioak izan da erakusketaren egilea. Erakusketaren helburua jende guztiari, eta, batez ere, 5-10 urte bitarteko umeei, munduko beste kultura batzuk ezagutzera ematea da, horrela, jatorri eta kultura anitzeko pertsonen arteko elkarbizitza sustatuz eta elkar ezagutzea bideratuz.

Erakusketa hainbat panelez osatuta dago, eta panel bakoitzean ipuin bat, herrialde bat edo kultura bat ikus dezakegu. Horrez gain marrazteko txokoa eta irakurtzeko txokoa ere badaude; bertan fitxa didaktikoak eta ludikoak daude erabilgarri; hortaz, neska-mutilen parte-hartze aktiboa ziurtatzen da.

Erakusketa Aiete Kultur Etxean egon da ikusgai azaroaren 15etik 22ra eta Okendo Kultur Etxean, azaroaren 25etik 29ra.

Azaroaren 20an, arratsaldeko 6etan, Aiete Kultur Etxean erakusketa ikusteko bisita gidatua egin zen jende guztiarentzat.

Egun horietan bisita gidatuak egin dira lehen hezkuntzako 2. zikloko ikasleentzat. Bisitek ordu eta erdi iraun dute eta goizez egin dira. Horrez gain, Haurtxokoen erabiltzaileentzat ere bisita gidatuak egin dira. Bisita gidatuetan monologo antzeztua txertatu da.

Bisita gidatuetan 9 ikastetxek parte hartu dute eta guztira 447 ikasle bertaratu dira. Halaber, bisita gidatuak egin dira 8 Haurtxokotan eta 224 umek parte hartu dute. Guztira 671 parte-hartzaile umek parte hartu dute.

Donostiako Udalaren Gazteria Atalaren, Donostia Kulturaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzaz egin da.



Bisita gidatua Aiete Kultur Etxean



Bisita gidatua Okendo Kultur Etxean

SENTSIBILIZAZIOA ETA KONTZIENTZIAZIOA

Giza Eskubideen Egun Unibertsala

2013ko abenduaren 10a

Giza Eskubideen Nazioarteko Egunarekin bat eginez, Principal Antzokian "Balta Txuria, Balta Berdea. El rumor del Urumea" dokumentala eman da, SOS ARRAZAKERIAK egindako, Giza Eskubideen Zinemaldian eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin.

Dokumentala eman ondoren, mahai-ingurua egin da, honako gonbidatu hauen parte-hartzearekin: Andoni Gartzia (Astigarragako alkatea), Agustin Unzurrunzaga (Gipuzkoako SOS Arrazakeriakoa), Adriana Villalón (Antropologoa: bitartekaritza-zerbitzua) eta Maripiana Bartus (Balta Berdeako auzokoa).



Mahai ingurua, dokumentala eman ondoren.



Naiara Sampedro SOS Arrazakeria erakundeko presidentearekin eta Astigarragako alkateordearekin prentsaurrean.



Naiara Sampedro dokumentalaren aurkezpenean

AHALDUNTZEA

Emakume immigranteen topagune kulturaiztuna

Berdintasunaren eta Kultur Aniztasunaren atalak bultzatutako ekimen hori, 2010eko martxoaz geroztik egiten da, Emakumeen Etxean. Dinamizazioaz Garaipen kolektiboa arduratuko da.

Hainbat zapalketa sozial jasaten dituzten emakumeak ahalduntze-prozesua eratzeko proposamena da. Horri zapalketen sailartekotasuna esaten zaio: emakumeak izateagatik, immigranteak izateagatik, jaioterriagatik, kapitalismoak ezartzen dituen gizarte-maila jakin batean egoteagatik, azalaren koloreagatik, erlijio-sinesmenengatik, joera sexualagatik, indarkeria matxista jasateagatik, eta abar.

Epe luzerako prozesua da eta komunitatearen lan-politikak aldi berean abiaraztea eskatzen du: pertsonak dute lehentasuna, helburua indar kolektiboa lortzea da, konfiantzak eraiki behar dira, esparru segurua aldekoen politikarekin, jagotea, erritmoak errespetatzea, lurraldeko aniztasunaren eta elkarbizitza kulturaztunaren aberastasuna.

Helburu nagusia emakume immigranteen hirian protagonismo soziopolitikoa lortzea da, banakako eta taldekako ahalduntze-prozesuen bidez. Astearen behin biltzen da, astearteetan, arratsaldean eta saioak 2 ordukoak dira.



2013an, 14 herrialdeko 36 emakumek parte hartu dute topagunean.

SAREETAN PARTE HARTZEA

Udalanitz Sarea

Udalanitz sarea Foru Aldundiak eta Gipuzkoako 30 bat udalek, osatzen dute, Donostia tarteko. Instituzioei aniztasuna kohesio-elementu gisa kudeatzeko era zehazten eta erabakitzen laguntzea da asmoa. Udalanitzen bidez, instituzioen arteko elkarlana, babesa eta aholkularitza sustatu nahi dira.

Otsailean udal teknikariek, Gipuzkoako beste udal batzuetako teknikariek batera, abegiari buruzko prestakuntza-jardunaldietan parte hartu dute, Aiete Kultur etxean.

Bestalde, Udalanitz sarea osatzen duten instituzioek, Deklarazio Instituzionala adostu dute martxoaren 21erako, Arrazismoaren eta Xenofobiaren aurkako Nazioarteko Eguna dela eta. Donostiako udal gobernuak bat egin du deklarazioa horrekin.



Abegiari buruzko prestakuntzarako jardunaldien irudiak

SAREETAN PARTE HARTZEA

Hiri kulturanzitunen sarea

2011ko urtarrilean sortutako Intercultural Cities (CoE-CE) proiektuaren ekimena da. RECI-k hainbat helburu ditu: **kultura arteko programak dituzten Espainiako hainbat hiri elkarrekin harremanetan jartzea**, esperientziak trukatzeko eta diseinatzeko eta jarduteko estrategiak eztabaidatzeko; **aniztasunaren kultura sustatzea, proiektuan parte hartzen duten hirietan**, arduradun politikoen eta gizarte zibileko eragileen arteko elkarrekintza bultzatuz, eta hiri horien artean **esperientziak elkartrukatzea**, kultura arteko politikak eta ekintzak gehiago garatzeko.

Donostiako udala sareko kidea da fundatu zenez geroztik.. Gainerako hiriak hauek dira: Bartzelona, Bilbo, Cartagena, Fuenlabrada, Getxo, Xerez, Parla, Sabadell eta Tenerifeko Kabildoa.

Apirilean, Fuenlabradan egin zen RECI-ren V. Topaketan parte hartu dugu. Batzar horretan, 2013ko lan-plana eta RECI-ren adierazleen proposamena aurkeztu ziren, Aniztasuna proiektuaren barruan eta Marmarren Aurkako proiektua azaldu da.



V. RECI Topaketako parte-hartzaileak, Fuenlabradan.

SAREETAN PARTE HARTZEA

ICC- Intercultural Cities

Kulturarteko hirien sareak adituen laguntza eskaintzen du eta, halaner, aniztasuna hobeto kudeatzen ikastea eta aniztasunaren abantailez baliatzea erabaki duten beste hirien babesa ere eskaintzen du. Nazioartean baieztatu eta egiaztatutako metodologia eta tresna analitikoak eta ikaskuntzakoak eta eskaintzen ditu. Hiriko politikak eta zerbitzuak berregituratzeko laguntza ematen du, testuinguru aniztunean eraginkorrak izan daitezen eta hiritarren artean aniztasuna abantaila lehiakorra dela ezagutzera emateko balio dezaten.

Europako Kontseiluak eta Europako Batzordeak elkarrekin sortutako proiektua da. Proiektuaren helburu nagusia pertsona immigranteen eta gutxiengoen integrazioari buruzko **ideia praktiko berriak bultzatzea da. Hirien arteko ezagutza eta elkartrukatzea** bideratu nahi ditu. Sarea **hirien ikaskuntzarako komunitatea** da. Sarean **politikari profesionalak, akademikoak eta gizarteko kideak** parte hartzen dute, aniztasunaren erronkari erantzun baikorra emateko.

ICC 20 hiritik gora eta 4 sare nazionalek osatzen dute.

2013ko irailean Aiete Kultur Etxean Mediane Topaketa "Aniztasuna eransteko Europako Komunikabideak" egin zen. Europar Batasunaren eta Europako Kontseiluak elkarrekin sortutako ekimena da, Community Media Forum Europe, Donostiako Udala eta Pausu Mediaren laguntzaz.



DIRU LAGUNTZAK

Bakea, giza eskubideak eta kultur aniztasuna

Giza Eskubideen atalak 60.000 euro banatu ditu guztira irabazteko asmorik gabeko 32 erakunderen artean, bakearen, giza eskubideen eta kultur aniztasunaren aldeko proiektuetarako.

Diru-laguntzan helburua ondorengo proiektuak garatzen dituzten erakundeei babestea da:

- Bakea, elkarbizitza, memoria historikoa erreskatatzea eta giza eskubideak hedatzeko, eraikitze eta sustatzeko proiektuak.
- Kultur aniztasuna bideratzen duten giza eskubideen aldeko eta haiei buruzko sentsibilizazioa sortzeko proiektuak eta ekintzak.

Kultur aniztasuna bideratzen duten giza eskubideen aldeko eta haiei buruzko sentsibilizazioa sortzeko proiektuak eta ekintzak diruz laguntzeko kopurua 21.500 eurokoa izan da. Diru-kopuru hori 9 elkarteren artean banatu da, lortutako puntuen arabera.

Diru-laguntzen deialdia egin zenean, Kultur Aniztasunaren Atala sortu gabe zegoen; beraz, kultur aniztasunaren aldeko proiektuetarako eta jardueretarako diru-laguntzak eman ahal izateko, Giza Eskubideen deialdiaren barruan sartu behar izan ziren.